

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2226

EBAZPENA, 2015eko maiatzaren 8koa, Ikastetxeen zuzendariarena, zeinaren bidez agintzen baita Donostiako Musikene-Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegi Baimenduaren Orkestra Ikasketen Irakaskuntza Artistikoa Masterraren ikasketa plana argitaratzeko.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak (LOE) eta Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak (LOMCE) arautzen dituzten goi mailako ikasketa artistikoen antolamendua ezartzen du urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuak –urtarrilaren 23ko 21/2015 Errege Dekretuak aldatutakoak–. Dekretu horren 7.1 artikuluan jaso bezala, goi mailako irakaskuntza artistikoa ematen duten ikastegiak baimenduta daude Arte Irakaskuntzako Goi Mailako Titulua eta Masterra eskaintzeko.

Halaber, errege dekretu horren 13.1 artikuluan goi mailako arte irakaskuntzen master tituluen ikasketa planak homologatzeko prozedura ezartzen da.

Izapide guztiak beteta, Ebaluazioko eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiak, Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministroaren ordezkarietzaz, homologatu du Orkestra Ikasketen Irakaskuntza Artistikoa Masterraren (hari instrumentuak) tituluen ikasketa plana eta Tituluen Erregistro orokorrean inskribatu da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 15. artikuluan jaso bezala, Ikastetxeen Zuzendaritzari dagokio erregimen bereziko irakaskuntzak ezarri eta garatzeko diseinua eta programazioa egitea; besteak beste, Musikene-Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiko ikasketak.

Hori guztia kontuan hartuta, hauxe

EBAZTEN DUT:

Agintzea Donostiako Musikene-Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegi Baimenduaren Orkestra Ikasketen Irakaskuntza Artistikoa Masterraren (hari instrumentuak) ikasketa plana Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko, ebazpen honen eranskinean agertu bezala.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzaren 8a.

Ikastetxeetako zuzendaria,
JESÚS FERNÁNDEZ IBÁÑEZ.

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MUSIKENE-EUSKAL HERRIKO GOI MAILAKO MUSIKA IKASTEGIAREN ORKESTRA IKASKETEN IRAKASKUNTZA ARTISTIKOA MASTERRAREN (HARI INSTRUMENTUAK) TITULUA LORTZEKO IKASKETA PLANA

Ezagupen alorra: Arteak eta Humanitateak.

Masterraren egitura:

Tituluaren kreditu kopurua: 60 ECTS.

Derrigorrezko materiak: 30 ECTS.

Hautazko materiak: 4 ECTS.

Kanpo praktikak: 20 ECTS.

Master Amaierako Lana: 6 ECTS.

Ikasketa plana:

Modulua/Gaia/Irakasgaia	Denboran iraupena / Izaera	ECTS
Modulu instrumentala		22 ECTS
Ikasgaia: Heziketa instrumentala		
Irakasgaiak:		
Orkestra erreperitorioa I: Barrokoa eta Klasizismoa	Lehenengo lauhilekoa / Derrigorrezkoa	4
Orkestra erreperitorioa II: Erromantizismoa	Lehenengo lauhilekoa / Derrigorrezkoa	4
Orkestra erreperitorioa III: Poserromantizismoa eta Mende Amaiera	Lehenengo lauhilekoa / Derrigorrezkoa	4
Orkestra erreperitorioa IV: XX. mendea eta Garaikidea	Lehenengo lauhilekoa / Derrigorrezkoa	4
Ikasgaia: Instrumentua:		
Irakasgaia		
Instrumentu nagusia	Lehenengo eta bigarren lauhilekoak / Derrigorrezkoa	6

Heziketa teorikoaren modulua		6 ECTS
Ikasgaia: Historia		
Irakasgaia: Orkestra erreperitorioaren historia eta bilakaera estilistikoa	Bigarren lauhilekoa / Derrigorrezkoa	3
Ikasgaia: Materia: Musikaren hizkuntzak eta teknikak		
Irakasgaia: Orkestra erreperitorioari aplikatutako analisia	Bigarren lauhilekoa / Derrigorrezkoa	3

Hautazko materien modulua (2 hautatzen dira)		4 ECTS
Ikasgaia: Gorputz teknikak		
Irakasgaia: Orkestraren lanari aplikatutako gorputz teknikak	Bigarren lauhilekoa / Hautazkoa	2
Ikasgaia: Historia		
Irakasgaia: Orkestraren eta orkestrazioaren historia	Bigarren lauhilekoa / Hautazkoa	2
Ikasgaia: Materia: Musikaren hizkuntzak eta teknikak		
Irakasgaia: Akustika aplikatua	Bigarren lauhilekoa / Hautazkoa	2

Modulu praktikoa		20 ECTS
Ikasgaia: Practicum-a		
Irakasgaia: Orkestra praktikak	Lehengo eta bigarren lauhilekoak / Derrigorrezkoa	20

Ikerketa modulua		8 ECTS
------------------	--	--------

Ikasgaia: Metodologia eta ikerketa		
Irakasgaia: Ikerketaren metodologia	Lehenengo lauhilekoa / Derrigorrezkoa	2
Irakasgaia: Master bukaerako lana	Bigarren lauhilekoa / Derrigorrezkoa	6
ECTS GUZTIRA		60 ECTS